



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO MAIATZAREN 28KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Premiazko bilera berezia.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.05.28.
Ordua: Eguerdiko 13:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Zinegotziak:

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Bertaratu ez direnak:

Iñigo Sarrias Zoco jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Zinegotziak onartu dute bilera egitea eta dagoen beharra.

Aztergaiak:

1.-2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana: Herriko Etxean eskailerak gainditzeko gailu bat jartzeko lanak.

1.-2017-2019 ALDIRAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA: HERRIKO ETXEAN ESKAILERAK GAINDITZEKO GAILU BAT JARTZEKO LANAK.

18/2016 Foru Legearen bidez, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen du.

Arantzako Udaleko Alkatearen 2017ko otsailaren 27ko 37. ebazpenaren bidez eskatu zen Arantzako Herriko Etxeko eskailerak gainditzeko gailu bat instalatzeko lanak aipatutako planean sartu eta diruz laguntzeko, prestatutako memoria baloratuaren arabera (Xabier Lopez de Uralde arkitektoak egina).

Toki Administrazioko zuzendari nagusiak uztailaren 13an emandako 307/2017 Ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki Programazioaren atalean sartutako behin-behineko zerrenda, zehazki "Udal ekipamenduak

eraikuntzako arau teknikora egokitzeko Toki Programazioan” dagozkion inbertsioena eta konkretuki, Arantzako Udaletxean eskailera-igogailua ezartzeko lanak.

Ondoren, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak urriaren 16an emandako 413/2017 Ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki Programazioaren atalean sartutako behin betiko zerrenda, zehazki “Udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitzeko Toki Programazioan” dagozkion inbertsioena eta konkretuki, Arantzako Udaletxean eskailera-igogailua ezartzeko lanak.

Kontuan hartuz obra 2019. urtean egiteko sartua dela.

Ikusirik Igor Lopez de Uralde Gutierrez arkitektoak egindako proiektua.

Proiektuaren aurrekontua hauex da:

-Exekuzio materiala: 20.612,16 euro, BEZ barne.

-Ordainsariak: 1.648,96 euro, BEZ barne.

Ikusirik obraren finantza plana:

-Obraren kostoa: 22.261,12 euro, BEZ barne.

-Toki Administrazio Departamentuko diru laguntza: 12.878,33 euro.

-Udaleko aportazioa: 9.382,79 euro (2019ko aurrekontuan sartuko den partidarekin).

Ikusirik aipatutako 413/2017 ebazpenaren 5. puntua eta 20/2017 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria, non aldatzen da 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duena eta, ondorioz, 2019an egin beharreko inbertsioen kasuan dokumentazio guztia aurkezteko epea 2018ko maiatzaren 31n bukatzen dela.

Ikusirik 18/2016 Foru Legearen 15. artikulua,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako “Udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitzeko Toki Programazioan” dagozkion inbertsioaren proiektua onartzea.

2) Arantzako “Udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitzeko Toki Programazioan” dagozkion inbertsioaren proiektuaren finantza plana onartzea.

4) Obra hau Udaleko errekurtsio propio edo soberakinarekin finantzatzea Nafarroako Gobernuko aportazioa tikiagoa izanen balitz eta Udalak jarri beharrekoa aurreikusitakoa baino handiagoa.

5) Akordio hau Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea proiektuarekin batera, jarduketak Toki Inbertsioen Planean sartzeko eta gehieneko diru-ekarpena finkatzeko eskatuz.

Bertzerik gabe, eguerdiko 13:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.

